



## Aurkeztu beharreko agiriak

### KIROL PROBAK

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Proba antolatzeko baimena, dagokion kirol-federazioak egina, holan eskatzen duenean kirol arloko araudiak.
- Probaren txostena: probaren izena eta txapelketaren ordena kronologikoa, probaren araudia, ibilbidearen krokis zehatza (data, ibilbidea, profila, pasaerako ordutegia, batez besteko abiadura), antolakuntzaren arduradunen (zuzendari betearazlea eta bide-segurtasuneko arduraduna) identifikazioa eta gidatzeko lizentzia edo baimena), gutxi gorabeherako partehartzaile kopurua, seinaleztatzeko neurrien proposamena eta aurrez ikusitako segurtasun-gailuak.
- Parte-hartzaile guztiei laguntza medikoa emateko gutxieneko osasunzerbitzuak (medikua eta anbulantzia) izatearen egiaztatzea.
- Erantzukizun zibileko eta istripuen aseguruak, probako parte-hartzaile guztiei estaldura emango dietenak:
  - Kontratazioa egiaztatzeko, eskabide-inprimakiaren erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da.
  - Unitate izapidegileak eskatuta baino ez da aurkeztuko polizen egiaztatzea.